

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko apirilaren 1a. VIII. urtea. 2.203. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Justo Lillo Entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa

«Garbi daukat zer egin behar den kirol munduan onena izateko, lana»

Entrenatzaile eta prestatzaile fisiko tolosarra atletismoan hasi zen; gaur egun Aspe enpresako pilotariak prestatzen ditu eta Real Unioneko bigarren entrenatzailea da

Lilloren hitzetan, kirola gaur egun ikuskizuna da eta ondorioz, «onena izan behar zara»; hori lortzeko, «batzuk garbi joango dira eta beste batzuk ez» 05

Enrike Rubiños Vendetta taldeko partaidea

«Zuzenekoetan dena ematen dugu, ez gara gelditzen»

Vendettaren bigarren lana, 'Puro Infierno', eskainiko dute bihar, Leitzako Atekarock-en 06



Bateria jotzailea taldearen azken lana eskurartean duela. M.UGARTEMENDIA



Justo Lillo Usabal kiroldegian. I. GARCIA

Andoni Iturzaetak eta Itziar Jauregik Hamaikabat alderdia utzi dute

Iturzaeta tolosarrak politika aktiboa alde batera uztea erabaki du, eta Jauregi ibartarra EAJren zerrendan joango da udal hauteskundeetan 03

Joxantonio Ormazabal idazlea omenduko dute Topic-en

Elkar argitaletxeko lagunaren artean antolatuta dute biharko ekitaldia; 17:30ean hasiko da eta bertsolariak, trikitilariak, kantariak eta abar izango dira 02



HITZAK harpidedunen artean Korrikaren lekukoa eramatea zozketatuko du

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK kilometro bat erosi du aurten ere Korrikan. Lekukoa eramatea harpidedunen artean zozketatuko dugu.



Tolosa
Apirilak 13 - asteazkena
08:00etan

saria eskuratzeko deitu: **943-65 56 95** harpidedun kodea eskura duzula
Jasotako dei guztien artean zozketa egingo dugu. Sariidunaren izenak Apirilaren 8ko egunkarian.

harpidedunak **hitza**

Nerea Iglesias
Heapaindegia

Apirileko bezeroen artean
ile apaindegiko zerbitzua
zozketatuko da

Larraitz auzoa 25 behea

20260 Alegia

TFI 943 65 14 11



Tolosan bizi zen idazle zegamarra. HITZA

Lagun eta lankide artean omenduko dute Joxantonio Ormazabal idazlea

Ormazabalen heriotzaren lehenengo urtemuga dela eta, Topic-en izango da ekitaldia, bihar

Itzea Urkizu

Duela urte bete eskas zendu zen Joxantonio Ormazabal idazle zegamarra, eta urteurrenaren aitziakirekin, Elkar argitaletxeak eta beste hainbat lagunek omenaldia egingo diote, bihar, Topic-en.

Arratsaldeko 17:30ean hasiko da ekitaldia, eta saio desberdinak izango dira: bertsolariak, trikitilariak, haurrak kantari... Denetik izango da. Izan ere, Ormazabalek, bere idazle lanaz gain, bazituen aparteko afizioak ere; hainbat trikitilari idatzi zizkien abestiatarako hitzak, eta haurrei zuzenduriko zenbait kanturi ere letra jarri zien.

«Lagunen artean egindako omenaldia» dela nabarmendu

dute Elkar argitaletxeko arduradunek, eta bide honetan, ekitaldian idazleak eta marrazkilaria ere izango dira; batzuk zuzenean ariko dira, eta beste hainbatek bideo grabazioen bitartez parte hartuko dute zegamarra omenduko duen festan. «Arlo guztiak nahastuko ditugu omenaldian», dio Elkar-eko arduradun batek.

Joxan Ormazabal omentzeko ideia Elkar argitaletxeko lagunen artean sortu zen, eta bertako lankideek egin dituzte antolatzaile lanak ere.

Irakasle ipuin zalea

Lanbidez irakaslea zen, eta Zarautz eta Tolosako ikastoletan aritu zen haur eta gazteekin lanean. Han, ikasleei ipuinak kontatzen zizkien, eta horrela sortu zitzaion literaturarako sena.

Haur eta gazte literaturan egin zuen lanagatik ezaguna da, eta irakurle hauei zuzendutako lanean euskal kultura eta tradizioa oso kontuan izan zituen beti; horrela idatzi zituen, esaterako, Per-nando Amezketarra eta Lazkao

Txikiren inguruko liburuak, edo Joxe Miel Barandiaranek jasotako ahozko kontakizunetan oina-

Elkar argitaletxeko lagunen artean antolatu dute biharko omenaldia

Haurrek, bertsolariak, trikitilariak nahiz idazleek parte hartuko dute

rrituriko euskal ipuin herrikoiak. Era berean, pertsonaia mitologikoek, esaera zaharrek edo txistek ere bere literaturaren zati handia hartu zuten.

«Arrakastatsua» izan da Tolosaldean Ikastn-en mintegia

Jesus Torquemada, nazioarteko politika analista, izan da jardunaldietako hizlaria

I. Urkizu

Tolosaldean Ikastn eta Tolosaldea Goi Mailako Institutuak nazioarteko gaurkotasanaren inguruan antolaturiko mintegiak «arrakasta handia» izan du bere bigarren urtean, arduradunek diotenez. Pasa den otsailaren 14an hasi ziren mintegiko hitzaldiak, eta martxoaren 28ra bitarte iraun dute. Guztira, sei saio egin dituzte, eta 12 orduko iraupena izan dute jardunaldiek.

Nazioarteko gaurkotasanaren inguruko gaiak izan dira, Jesus Torquemada politika analistak landu dituenak, eta 250 lagun

izan ditu entzule. Lehen bi saioetan, Asiaren gorakada ekonomikoa izan zuten hizpide, eta Indiak datozen urteetan izan dezakeen gorakada ere nabarmendu zuen Torquemadak.

Hirugarren eta laugarren saioak, berriz, Afrikari eskaini zituzten. Gerrak, gosea, gaixotasunak eta txirotasuna bezalako elementuek itxaropenik sortarazten ez dien arren, Afrikako lehengaiak aurrera egiten lagunduko dietela nabarmendu zuten eskainitako hitzaldian.

Azken bi saioetan, Ekialde Hurbila, Europa eta Amerikaren gaurkotzea izan ziren hizketarako gaiak, eta joan den urteko mintegian aipatu eta eztabaidatu diren gaiak gaurkotu zituzten. Era berean, mundu osoari eragin dion krisi ekonomikoaren sorburua, zergatia eta aurrerantzean izango duen garapena ere bereziki landu zituzten.



Gemma Zelaia, Jesus Torquemada eta Gorka Igartua. HITZA

Fusioa, musika intimoa eta rock-a izango dira apirileko protagonista

Hileroko moduan, ostiral eta larunbat gauetan izango dira zuzeneko emanaldiak Bonberenean

I. Urkizu

Askotariko musika eta disko estreinaldiren bat ere izango da hilabete honetan Bonberenean.

Gaur bertan, bi kontzertuz gozatzeko aukera izango dute bertaraten direnek. Kea talde beasaindarrak, *Copenhague* izeneko

bere bigarren diskoa kaleratu berrikan, barru-barruko doinuak eskainiko ditu, indie eta pop-rockaren ildotik. Cerdos de Grunge taldea ere, oholtza gainean izango da gaur gauean, 22:30ean.

Bihar berriz, flamenkoa oinarri hartuta, munduko musikekin fusioa egiten duen Ja Ta Ja talde nafarrak zuzeneko eskainiko du, eta abestu eta musika jotzeaz gain, dantza ere egingo dute.

Datorren asteburua, rock doinuekin hasiko dira Bonbereneako emanaldiak, Boogie Van errenteriarrekin, eta Mulerekin. Hilaren 9an, berriz, Garate eta

Fiachras taldeek bisitatuko dute Tolosa. Azken hauek, beren azken lana aurkeztuko dute Bonberenean. Beste musika talde batzuetatik datoz Fiachraseko kideak, eta estilo zehatz batzuetako musika jotzeaz aspertuta, ez dute etiketarik nahi. Minimalistak dirrela dio zenbaitetik, baina eurek ez dute sailkapenik nahi.

Apirilaren 15ean, KOP talde kataluniarraren hardcore doinuak izango dira entzungai, eta baita Governors euskaldunen rock alternatiboa ere. Azkenik, hilaren 16an, tolosaleko Keiran taldeak zuzeneko eskainiko du.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Andoni Iturzaetak eta Itziar Jauregik Hamaikabat utzi dute, EAJra hurbiltzeko

2010 urriaren 21ean Tolosako eta Ibarako zerrendaburu bezala joango zirela azaldu zuten, H1! alderdiarekin

A. Imaz

Itziar Jauregi ibartarra EAJren zerrendan joango da maiatzeko hauteskundeetan. Andoni Iturza eta tolosarrak, aldiz, politika aktiboa alde batera uzteko erabakia hartu du. Hala eta guztiz ere, EAJri «beharrezko elkarlana» eskaini dio.

Egun, Jauregi eta Iturzaeta Hamaikabat alderdiko zinegotziak dira Ibarren eta Tolosan. Biek, ordea, alderdia uzteko erabakia hartu dute, nahiz eta iragan urrian maiatzeko hauteskundeetan zerrendaburu joango zirela esan. 2007ko hauteskundeetan Eusko Alkartasuna alderdiaren zerrendetan aurkeztu ziren biak. Ondoren, Hamaikabat alderdia sortu zenean, EAtik atera eta bertako hautetsi izatea erabaki zuten, 2009an.

«EAJrekin indar metaketa»

Andoni Iturzaetak eta Itziar Jauregik hartu duten erabakia, «hausnarketa sakon eta zintzo ba-



Iturzaeta eta Jauregi, Tolosan eta Ibarren, maiatzeko hauteskundeetarako H1!-en zerrendaburu aurkeztu ziren. I.T.

ten» ondorioa dela esan dute: «Garai berri baten atarian gauden honetan, ezinbestekoa zaigu indar metaketaren aldeko apustua egitea azken urte hauetan udal jardueran elkarren eskutik aritu garen EAJko kideekin».

Hamaikabat eta EAJren artean akordioak lortu ez izana ere kritikatu dute, «berezik, zatiketa hauek, gizartearen gehiengoarentzat oso urrun geratzen diren

ñabarduretan oinarritzen badira».

Iturzaeta eta Jauregiren esanetan, H1!en sorrera «ezinbestekoa» iruditu zitzaion EA hartu zuen norabide «ulergaitzaren» ondorioz: «Alderdi berri gisa eratzea rekin batera, argi adierazi genuen gure helburua abertzaletasun historikoa indartzea zela, eta gure asmoak, inondik inora ez zuela aurreikusten jada hain zati-

katua zegoen abertzaletasunaren atomizazioa».

Bestalde, euren esanetan, «arrazoi ideologikoak tarteko, EAtik alderdi berri herriarrek, botoa Aralar edo EAJ bezalako alderdiak zuzentzea, hauteskunde lehian beste alderdi berri bat aurkeztea baino eraginkorragoa izan daitekeela deritzogu aipaturiko zatiketaren sakontzea ekidituz».

↓ Kirol jarduera

BIHAR, APIRILAK 2

Usabal, goiko kantxa.

■ Saskibaloia 09:00etatik 14:00etara:

1. Infantil neskek: Take Bedaio-Zuburi.
2. Infantil mutilak: Take Aldaba-Easo 9B.
3. Infantil mutilak: Take Ori-Ointxe.
4. Kadete mutilak: Triki Take-Bergara.
5. Jubenil mutilak: Take Tolosa-Atco Sn.
6. Kadete mutilak: Bide bide-Sto Tomas.
7. Kadete neskek: Take Aralar-Orio.

■ Saskibaloia 16:00etan. Junior emakumeak: Aralar Take-BKL.
■ Eskubaloia 17:30ean. Juniorrak, Tolosa-Bidasoa.

Usabal, beheko kantxa.

■ Eskubaloia, 12:00etan. Infantilak: Tolosa-El Pilar.

Usabal, futbol zelaia.

- 10:00etan, infantil txiki: Tolosa CF-Sportin Herrera.
- 12:00etan, infantile ohorezko maila: Tolosa CF-Beasain.
- 15:30ean, preferente maila: Tolosa CF-Orioko.
- 17:30ean, emakume seniorrak: Tolosa CF-Anaitasuna.

Beotibar pilotalekua.

■ 10:00etan, esku pilota partidak. Guztira lau, Gravn txapelketaren baitan.

Asteburuko zine karteldegia barruan 'Sorgin bat etxean' ikusteko aukera

Larunbatean, igandean eta astelehenean hiru pelikula jarriko dituzte Tolosako Leidor aretoan

A. Imaz Tolosa

Apirilean hamaika pelikula ikusteko aukera egongo da ohi bezala Leidor aretoan. Larunbat honetan, 19:30ean, *Winter's bone* eskainiko dute, eta 22:30ean, *Primos*.

Igandean, hilaren 3an, 17:00etan, *Sorgin bat etxean* ikusteko aukera egongo da. 19:30ean, *Primos*-en txanda izango da eta 22:00etan, *Winter's bone*-ena.

Astelehenean, hilaren 4ean, *Winter's bone* eskainiko dute, 20:30ean.

Hurrengo emanaldia apirilaren 7koa izango da, *Las zapatillas rojas* pelikularekin.

Hautesle eroldako zerrenda jendaurrean jarri dute

Daturen bat oker duenak apirilaren 4tik 11ra aldatu beharko du, Tolosako udaletxean jarri duten gunean

A. Imaz Tolosa

Tolosako Udaleko arduradunek azaldu dutenez, herritarrei jakinarazten zaie indarrean dagoen hautesle eroldako zerrendak jendaurrean jarrita egongo direla udaletzeko beheko solairuan, apirilaren 4tik 11ra bitartean, biak barne. Maiatzeko hauteskundeak begira, oker dagoen daturen bat zuzendu nahi duenak orain izango du aukera. Erreklamazioa egiteko NANaren, pasaportearen edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu behar du udaletzeko Estatistika Departamentuan, 3. solairuan.

Oargi mendi elkartetik Cotiella eta Peña Montañesa igoko dituzte

Izena ematerako uanean 20 euro ordaindu beharko dira; neguko materiala emateko ere eskatu dute

A. Imaz Tolosa

Apirilak 8, 9 eta 10erako mendi irteera antolatuta du Oargik. Tolosatik Cotiella eta Peña Montañesa

mendietara joango dira. Lehenik, ostiral arratsaldean, Saravillo herriaren dagoen aterpetxera joango dira. Bigau egingo dituzte bertan.

Hurrengo egunean, hilaren 9an, gosalduta eta Cotiella (2911 m) igoko dute. 6 ordu inguruko igotze da. Afaltzera berriro Saravillo herriko aterpetxera jaitziko dira.

Azken egunean, hilaren 10ean, autoz Oncins herrira joango dira, bertatik Peña Montañesa (2291m) mendia igotzeko. Lau or-

duko igoera izango dela azaldu dute Oargitik. Ondoren, etxerako itzulia egingo dute.

Izena emateko, info@oargi.org edo oargimendi@gmail.com helbidetara idatzi beharko da. Beste aukera bat 688 69 86 42 zenbakira deitzea izango da. Apuntatzeko garaian 20 euro ordaindu behar dira Euskadiko kutxan, 3035 0028 11 0281141038 zenbakian.

Neguko materiala emateko ere eskatu dute: kranpoiak, pioleta...

Iragarki laburrak

GARBIKETA

■ Auxe Garbitasunak.

Alfonbrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaude. Interesa dutenek dei dezatela inongo konpromisorik gabe ondorengo telefono zenbakira: 638 94 46 04ra. Bertan Gurutzeregatik galde-tu beharko dute.

ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Baserri edo borda bat hartuko genuke alokairuan. Bizileku bezala. Interesatuak deitu 652 71 58 00 zenbakira.
■ **Taberna.** Tolosan taberna bat alokatzen dut. Lizentzia badu eta erreformatu beharra dago. Interesatuak, deitu 619 48 86 47 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Altzairuak.** Armairua eta mahai eder bat bere banku eta aukierkin saltzen ditut. Argazkiak ikusgai daude honako webgunean: www.iragarkilaburrak.com. Interesatuak deitu 629 12 28 61 telefono zenbakira.



Apirilak 1 ostirala:
Mus txapelketa (Villabonako kanporaketa).
Izen ematea: 21:00. Ordua: 22:00.
Non: Musika Eskola. Prezioa: 12€ bikotea.
Apirilak 7 osteguna:
Korrikako dokumentala.
Ordua: 19:00.
Non: Udaletxeko balioanitzeko gelan.
Apirilak 13 asteazkena:
6:38 korrika Villabonan sartuko da.
15:15 korrika txikia Zubimuxun.
Ondoren txokoladeta eta haur jolasak.
Apirilak 16 larunbata:
Korrika herrikoa.
18:00 izen ematea. 19:00 korrika.
Ondoren dantzaldia GUGAZ taldearekin.
Material salmenta:
Apirilak 1 ostirala:
18:00tan berdura plazan.
Apirilak 16 larunbata:
18:00tan berdura plazan.

Senidetze eguneko egitaraua osatzeko bilkura
Apirilak 11 astelehena
19:00etan, balioanitzeko gelan
Jai batzordea
Apirilak 18 astelehena
19:00etan, balioanitzeko gelan
"Tibet erbestean: herri baten duintasuna"
Apirilak 8 ostirala.
Hitzaldia eta proiektzioa
"Odeien atzean, eguzkia"
dokumentalaren proiektzioa.
18:00etan, Aljibearen.
Erakusketa
16:00-19:00, Aljibearen.

larunbatere
XAKE TXAPELKETA
16:00etatik aurrera. Musika eskolan.

antzerkia

Helduontzako antzerkia
OTEIZA EZBERDIN GIZARTEA
Apirilak 8, ostirala
22:30. Sarrera 5 €
Haurrentzako antzerkia
PUTXERRIKO SATORRA
Maiatzak 1, igandea
Askaingo ikastolaren eskutik
Arratsaldeko 16:30etan Sarrera 4,50 €
tailerra
Apirilak 9, larunbata
ANTZERKI TAILERRA
Ainhoa Alberdirenkin.
Goizeko 9:30etatik 13:30 etara
(16 urte gorakoentzat tailerra 10 €.
Gazte txartela 8 €. Hamaiketako barne)
• Izen ematea: 943691655
eta antzerkizale@hotmail.com

BILLABONAKO AURRESKU ETA SOINU ZAHAR TXAPELKETA

ZINEA
Sarrera 4 €. Astelehena ikusgaiaren eguna 3 €.

EL CISNE NEGRO
Apirilak 2 Larunbata, 19:30etan eta 22:30etan
Apirilak 3 Igandea, 19:30etan
Apirilak 4 Astelehena, 21:30etan
THE FIGHTER
Apirilak 9 Larunbata, 22:30etan
Apirilak 10 Igandea, 19:30etan
Apirilak 11 Astelehena, 21:30etan
EL DISCURSO DEL REY
Apirilak 16 Larunbata, 19:30 eta 22:30etan
Apirilak 17 Igandea, 19:30etan
Apirilak 18 Astelehena, 21:30etan
SOY EL Nº 4
Apirilak 30 Larunbata, 19:30etan eta 22:30etan
Maiatzak 1 Igandea, 19:30etan
Maiatzak 2 Astelehena, 21:30etan

HAURRENTZAKO ZINEA Sarrera 2,00 €

LA MONTAÑA MÁGICA Apirilak 3 Igandea, 16:30etan
GNOME Y JULIETA Apirilak 10 Igandea, 16:30etan
VALENTINO Apirilak 17 Igandea, 16:30etan

Euskadiko Ikasleen Orkestran ari dira Antton Telleria eta Maddi Garikano tolosarrak. Urtean ikasiz aritu eta gero, goi mailako talde sinfoniko batean jotzeko aukera izan dute.

Musika ikasle aurreratuetak

Joxemi Saizar Tolosa

Gazteak dira. 17 eta 16 urte dituzte. Tolosarrak. Batxilergoa ari dira ikasten Laskorain ikastolan, 2. maila Antton Telleriak, 1. maila Maddi Garikanok. Eta musika ikasketak aurreratuak dituzte. Perkusioan mutilak, biolinean neskek. Duela zazpi urte hasi ziren Tolosako Eduardo Mokoroa udal musika eskolan ikasten. Euskadiko Ikasleen Orkestran (EIO) ari dira une honetan, EAEko hiriburuetako kontserbatorioetako ikasleek osatutako talde sinfonikoa.

Duela sei urte sortu zen EIO, Bilbo, Donostia eta Gasteizko musika kontserbatorioetako ikasleei jendaurrean aritzeko aukera emateko asmoz. 12-18 urteko gazte txakak dira 85 partaideetako gehienak. Beste leku batzuetako ikasleak ere aritzen dira, beharrien arabera. Iker Sanchez gazte irundarra da zuzendaria. Aurten EIO Gaztea sortu dute, 10-14 urteko ikasleekin.

Beteranoa eta berria

Maddi Garikanok laugarren urtea du EIOan. Biolin ikasle asko daudenez, urtero gainditu behar izan ditu sarrera frogak gogorrek. «Urtero irteera bat egiten dugu, hemengo kontzertuez gain. Lehen urtean Bruselara joan ginen, hurrengoan Bartzelonara, iaz Veneziulara, eta aurten Zaragozara», dio. Tolosan Patxi San Sebastian izan zuen irakasle eta orain, Donostian, Lidia Aramendi eta Tomas Ruti. Erdi mailako azken urtean falta zaio.

Antton Telleria aurten sartu da lehen aldiz EIOan. «Berez erdi mailan aritu beharko nuke Errenterian, baina Tolosan jarraitzen dut Jesus Mari Garmendia irakaslearekin, datorren urtean musika ikasketak utzi eta unibertsitatera noalako. Karlos Alcalaarekin ere aritu izan naiz», dio.

Sarrera frogak gainditu ondoren entsegu eta kontzentrazio batzuk izan dituzte Barrian (Arabian) asteburu bat, Bilbon egun bat, eta azkena, lau eguneko, Eibarren. «Inauterietan tokatu zen eta gogorra izan zen, baina gustura aritu gara. Eguneroko zortzi orduz aritzen ginen lanean, tartean atsedanak hartuz. Obra batzuetan perkusioetako aspertu egiten ginen, itxaron konpas asko gurelako», dio Telleriak. «Asko ikasi behar da, programa zailak izaten direlako. Ni ez nintzen aspertzen, biolin lehena naiz eta melodia nuen. Asko aurreratu

dugu», dio Garikanok. Aurten aukeratutako programa Karmelo Bernaolaren *Tierra*, Beethovenen 5. sinfonia eta Mendelshoneren biolinarako kontzertua, bakarlari gisa Julen Zelaia arituz.

«Jende jatorra» topatu duela dio taldekide berriak, «elkarlanerako erraza». Beteranoenak bazituen lehendik ezagun batzuk. «Harridura» sortu die taldekide askok euskaraz ez egiteak, eta gaztelaniarazko mintzapraktika batzuk egin behar izan dituzte.

Iker Sanchez zuzendariarekin oso gustura ageri dira: «Zuzendari ona eta jatorra da, pazientzia handikoa. Badaki zuzentzen eta azalpenak ematen. Harrituta gelditzen nintzen nola harrapatzen zituen tonutik at egindakoak», dio perkusiojoleak. «Aurreko zuzendariarekin baino gusturago nagor», eransten du biolin jotzaileak.

Martxoaren 12an eta 13an eman zituzten lehen kontzertuak, Donostiako Kursaalaren eta Bilboko Kontserbatorioaren. «Zuzargarria izan zen kursaalakoa. Halako leku handia, jendea betea... Gainera lehen kontzertua zen eta urduri ginen. Konfiantza falta nabari zen. Beethovenen obra ezaugua da, baina Bernaolarena oso modernoa eta ezezaguna», dio Telleriak. «Bilbon hobeto atera zitzaigun», eransten du Garikanok. Kritika positiboak izan dituzte prentsan. «Ez dira heldutasunera iritsi, baina bidean dabilta», izenburupean. «Esfortzua, ahalegina, nekea eta kementa», aipartzen zituen gazte hauen ezaugarri gisa. «Maila oso oneko taldea»,

deitzen zion Maria Jose Canok *Diario Vascon*, «irakurketa profesionala, energia eta boterea» hitzak erantsiz.

Gaur ariko dira berriro Gasteizen eta, bukatzeko, bihar Zaragozan. «Tolosan ere eskaini genuen kontzertu bat, duela bi urte», gogoratzen du Garikanok.

Etorrizunera begira

Eta aurrerantzean zer? Bi gazte tolosarrek zaila ikusten dute musikatik bizitzea. «Eibarren orkestrako kide askok asmo hori dutela ikusi nuen. Asko musikariaren edo musikari irakaslearen seme-alabak dira. Abantaila da. Agian erraza gozango dute jende gehiago ezagutzen dutelako», dio Telleriak. «Oso argi eduki behar da hortik jotzeko», dio bere kideak.

«Iaz batxilerraren egiteko zailtasun izan nintzen, baina azkenean Tolosan, Laskorain ikastolan gelditzea erabaki nuen. Batxilergoko urte bat falta zait. Biolinarekin, eta EIOrekin jarraituko dut. Gero ez dakit zer egingo dudana», dio Maddi Garikanok. Antton Telleriak Aste Santuan Euskal Herriko Gazte Orkestrarako (EGO) probetara aurkezteko asmoa du. Helduagoak dira hauek, 19-27 urteko gazteak. Igor Arostegi eta Mikel Zelaia perkusiojole eta lagun tolosarrak dira EGOko partaide gaur egun. «Aurreko urtean aurkeztu eta 4.a gelditu nintzen hamahiruren artean. Aurten bakarra behar da. Proba egingo dut. Hemengoa izatea dut abantaila», dio Antton Telleriak. Datorren ikasturteetik aurrera zailagoa ikusten du musika ikasketekin jarraitzea, unibertsitateko ikasketetan murgilduko

delako. «Hala ere, Kursaalaren hainbeste jenderen aurrean jo eta gustura geldituta zalantzak sartzen zaizkizu. Argi daukat musika jotzen jarraituko dudala Bandan, txaranga, taldean...», gaineratu du. Tolosako Musika Bandan, Jainekin eta Bonberenea txaranga eta Dolce Tangana taldean ere aritzen da perkusiojolea. «Irakasle bat hartu eta batera ikasten se-

Donostian eta Bilbon emandako kontzertuetan kritika onak jaso dituzte

Zaila ikusten dute musikatik bizitzea; jarraitu ala ez, erabaki gabe daukate oraindik

gituko dut, maila mantendu, eta, ahal bada, hobetzeko», dio.

Garikano berriz, Tolosako Musika Eskolako Arimaz, Donostiako Kontserbatorioetako eta Santa Maria parrokiako orkestratan ere ari da biolina jotzen eta entzunaldi batzuk ere egiten ditu kontserbatorioan. Futbolearen jokatzeko Tolosan. «Lepauztaia hautsi nuen, eta hilabete egon nintzen biolina joga eta futbolearen jokatu gabe, baina urtarrean hasi nintzen berriro», azaldu du. Telleria zesta puntan ere aritzen zen, baina utzi behar izan zuen denbora faltagatik. «Perkusioa ezin dugu etxean ikasi, musika eskolara joan behar dugu derrigorrez», dio. «Donostiara joaten naizean ikastera, arratsalde osoa pasatzen dut. Denbora asko behar da», dio biolinistak.



Antton Telleria eta Maddi Garikano orkestrako soinu tresnen aurrean. JOXEMI SAIZAR

Imanol Garcia Tolosa

30 urtetik gora daramatza Justo Lillok (Tolosa, 1960) prestatzaile fisiko eta entrenatzaile gisa. Heziketa fisikoan lizentziatua da eta goi mailako errendimenduaren inguruko lehen masterra egin zuen. Atletismoan eta futbolearen entrenatzaile nazional titulua du. 18 urterekin hasi zen ia bere adineko atletak entrenatzen. Futbolearen hainbat talde eta mailatan izan da: Tolosa, Hernani, Izarra, Eibar... Liverpool talderako ere fitxatu zuten, baina hilabete gutxi egon ondoren, «arazo pertsonalengatik» itzuli egin zen. Egun, Aspeko pilotariak prestatzen ditu Tolosako Usabal kiroldegian, artean Abel Barriola, eta Real Union futbol taldeko bigarren entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa da.

Zein ezberdintasun dago pilotarien eta futbolarien arteko prestatketan?

Oso ezberdinak dira. Bietan abiadura, erresistentzia eta indarra lantzen ditugu, baina kirol bezala oso ezberdina da pilota. Urte osoan egon behar duzu sasoi onean. Futbolearen errazagoa da zikloak egitea. Pilotako lehenengo urtea erokeria izan zen niretzat. Pilotarietara galdetzen nien noiz hasten zen atsedena, eta «inoiz ez» erantzuten zidaten. Neguan txapelketak dituzte eta udan jaialdiak. Beraz plangintza berezia bat egiten dugu, erabat ezberdina beste kirolekin. Futbolearen talde batek jokatzeko du. Norbait ez badago sasoi onean, ordezkatu egiten duzu. Baina, pilotan, pilotari bakoitza mundu bat da. Antolakuntza ez da erraza.

Eta nolako izaten ari da esperientzia pilotaren munduan?

Ona izaten ari da. Kanpoan entzuten da pilotariak oso alferriak direla, ez zaiela gustatzen entrenatzea... Nire kasuan, edo zorte handia izan dut, edo esaten den hori gezurra da. Fama txarra izan dute pilotariak, baina hori orain dela urte askotatik dator. Azken ha-

Justo Lillo ◉ Entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa

Kirolari lotuta bizi da Justo Lillo tolosarra. Atletismoan hasi zuen bere ibilbidea. Egun, Aspeko pilotariak prestatzen ditu, eta Real Union taldeko bigarren entrenatzailea eta prestatzaile fisikoa da.

«Sasoian egoteko, taktika, fisikoa, teknika eta burua puntu onean behar dira»

mar urteotan, nire ustez prestatketa maila igo egin dela. Ezin da konparatu Retegiren partida bat gaur egungo batekin. Egun erri-moa handiagoa da. Prestakuntza fisikoaren aldetik, orokorrean egungo pilotariak atletak dira.

Zerezaugarri ditu Abel Barriolak?

Agian osoena izango da. Iraupenaren aldetik oso maila altua du. Abiadura aldetik denok dakigu nola dagoen, belauneko lesioa pasatu arren. Oso indartsua da. Taktikoki ere oso azkarra da. Denboraldi osoan mantentzen du sasoi puntu altua. Lan gehiegi egiten duela da bere arazoa. Ez da konturatzen atsedena ere hartu behar duela. Lesio larria izan zuen eta ikusten da errehabilitatu egin dela. Ez badu arazorik, beste hiruzpalau urte ariko da lehen mailan.

Futbolearen prestatkuntza asko aldatu da hasi zinenetik?

Ni hasi nintzanean, batez ere atletismoarekin zerikusia duen prestatkuntza erabiltzen nuen. Gaur egun asko aldatu da. Baloia gehiago erabiltzen da. Bestalde, lehen ez zegoen ia prestatkuntza fisikorik. Bigarren B mailan, beste taldeetan prestatzaile fisikorik ez zateke gertatu izan zait. Egun prestatzaile fisikoak alebinetan ere badaude. Agian ez da hainbestetarikoa behar. Egun zikloak mo-



I. GARCIA

tzagoak egiten dira, eta edukiak ere ezberdinak dira.

Bigarren entrenatzailea zara Real Unionen. Zer moduz doa denboraldia?

Miguel Sola entrenatzailearekin Izarra taldean nengoen denboraldi hasieran. Abenduan deitu zituguten Real Unionetik. Izarrakoe-kin hitz egin ondoren, azkenean bertara joan ginen. Taldea bosgarren lekuan zegoela bota zuten aurreko entrenatzailea. Beraz, es-

kakizun maila handia da. Iaz bigarren mailatik jaitsi ziren eta hori berreskuratu nahi dute.

Entrenatzailearen eta prestatzaile fisikoaren arteko harremana oso es-tua izaten da, ezta?

Orain 20 edo 25 urte bakoitzak ia bere aldetik egiten zuen lan. Askotan entrenatzaileak esaten zizun ordu erdia zenuela prestatketa lanak egiteko. Gaur egun, ez da horrelakorik ulertzen. Dena elkarrekin prestatzen da. Entrena-

mentu integratua egitea da helburua. Garrantzitsua da prestatkuntza fisikoari buruz jakitea, baina baita jokoa ulertzea ere.

Kirolean sasoi onean egoteak garrantzia du, noski, baina baita burua bere lekuan izatea ere.

Nik beti esaten dut, sasoiaren ego-teko taktikoki, fisikoki, teknikoki eta buru aldetik puntu on batean egon behar zarela. Ez baduzu hori lotzen, zerbaite falta zaizu. Hori dena lortzea zaila da. Gero eta gehiago erabiltzen da psikologoaren figura. Real Unionen pixkanaka sartzen ari gara. Orain dela bi edo hiru urte erabiltzen zuten psikologo bat, eta nik uste dut ona izan zela.

Kirolari profesional baten eta profesionala ez den baten artean, zein da alde nabarmena?

Profesionalarentzako kirola lana da; hori da lehenengo ezberdintasuna kirolari ez profesional batekin. Ez bazoaz lanera, bota egingo zaituzte. Gainera, kirolari profesionalak beraiek ikusten dute egiten duten lana beraientzako dela.

Zertan aldatu da kirola, hasi zinenetik gaur egun arte?

Eskakizun mailan. Kirola ikuskitzuna bihurtu zen orain dela urte asko, eta badakigu zer gertatzen den kirol gehienetan: onena izan behar zara. Nola lortu hori? Denetarik dago. Baina nik garbi daukat: lanaren bidez egin behar da; gauza batzuk ez dira sartzen nire buruan. Heine batean, atletismoa horregatik utzi nuen. Nazioarte mailako atleta batzuk izan nituen, batez ere bat, oso ona zena. Esan zidatenez, mundu arraro batean sartu gabe, ezin da Olimpik Jokoa finalera iritsi. Iker Sukia ataundarrarekin aritzen nintzen. Lortu zuen guztia modu on batean lortu zuen. Helburu horiek lortzeko, badakigu nola dagoen mundu profesional hori. Batzuk garbi joango dira, baina beste asko ez. Jaurtiketetan, behintzat, ez du merzi. Badakizu iruzurra egingo dizutela.

OBRAK HASTERA GOAZ-EZAGUTU PROIEKTUA

BISITA GIDATUAK TABAKALERAN

Martxoaren 26tik apirilaren 10era

**Larunbat eta igandeetan
11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00**

www.tabakalera.eu

EL DIARIO VASCO



berria



TABAKALERA



Bisita jarraituak erreserbarik gabe /

Taldeentzat /
T: 620 676 095

TABAKALERA
Duque de Mandas, 52
Donostia

Enrike Rubiños • Vendetta taldeko partaidea

Vendetta taldeak 'Puro Inferno', bere bigarren diskoa, atera berri du, eta lehenengo kontzertuak eskaintzen ari dira; bihar bertan, Leitzako Atekarock jaialdian joko duten taldeetako bat izango da

«Gu bizi garen infernu horri, aurpegi ona jarri nahi diogu disko honekin»

Maier Ugartemendia

Puro Inferno disko berriaren promozioan bete-betean dabil Enrike Rubiños (Tolosa, 1977), Vendetta taldeko bateria jotzailea, perkusio jolea eta ahotsa. Skalariak taldean urte asko pasa ondoren, 2008 urtetik Vendetta proiektuarekin dabil buru-belarri. Taldeak transmititzen duen alaitasun bera, transmititzen du Enrike Rubiños berak.

Duela hilabete atera zenuten disko berria, zer moduzko harrera izan du?

Egia esan harrera ona izan du diskoak. Beti zalantza duzu, gustatuko den ala ez. Izugarria da disko bat ateratzea, eta ateratzen denean jendeari gustatzen zaiola ikustea izugarria da. Gu ere gustura gelditu gara jendearen erantzunarekin eta egindako lanarekin.

Zeresan nahi izan duzue *Puro Inferno* izenburuarekin?

Gauregun bizi garen bizitza infernuaren antzeko zerbaite da. Toki guztietan daude azkenaldi honetan arazoak, eta gure eguneroko bizitzan ere badaude arazoak. Gu bizi garen infernu horri, aurpegi ona jarri nahi diogu disko honekin. Bizipoza eman nahi diogu.

Disko honetako *Alerta* abestiaren bideoklipa Tolosako Bonberenean grabatu zenuten.

Managerraren bitartez Madrile-

ko 3 pertsona hona ekartzea lortu genuen. Hasieran, han grabatu behar genuen. Baina, hainbeste jende han biltzea zaila ikusten genuen. Orduan, hemen egitea proposatu genien. Bonberenean behar zen guztia han zegoela ikusi genuen, eta han grabatu genuen. Gainera, Iker Galartzari, Jon Iralari eta Joseba Usabiagari deitu genien, ea parte hartzera animatzen ziren galdetzeko, eta halaxe izan zen. Hori ere eskertzekoa da. Asteburu gogorra izan zen. Larunbatean 09:00etan hasi, eta igandean arratsaldeko 18:00etan edo amaitu genuen. Jendearen laguntza 3 edo 4 ordu inguruan behar izan genuen, baina ondoren beste ordu asko behar izan genituen grabatzen jarraitzeko.

3 urte dira taldea sortu zela, eta jada 3 bira egin dituzue. Ez zaudete gelditzeko moduan!

Egia esan, ez. Gainera, diskoa atera berria da, eta agenda pixka bat estresagarria da. Aurreko asteburuan adibidez, jai eduki genuen eta hori ondo dago, indarrak hartzeko (kar-kar-kar). Orain dela hiru aste Zaragozan eman genuen lehen kontzertua, eta duela bi aste Bonberenean eman genuen bigarrena. Oso gustura egon ginen. Momentuz ez gaude gelditzeko.

Aurreko biran 50 kontzertu baino**gehiago eman zenituzten. Zergatik dute zuen zuzenekoek horrelako arrakasta?**

Ez dakit. Egia esan, zuzenean ateratzen garen aldiro, dena ematera ateratzen gara. Hasieratik amaieraraino ez gara gelditzen. Badaude tartetxo batzuk arnasa hartzeko erabiltzen ditugunak, eten batzuen bidez, isilik ez geratzeagatik. Kontzerturo dena ematen dugu, azkenekoa balitz bezala. Nik uste dut, jendeari hori transmititzen diogula.

Bira honetako bigarren kontzertua Tolosako Bonberenean eman zenuen, eta larunbat honetan Atekarocken joko duzue. Zer moduzko harrera izaten duzue eskualdean?

Egia esan eskualde honetan harrera ona izan genuen hasiera-hasieratik. Lehenengo diskoa atera genuen, hilabete batera edo, Bonberenean etorri ginen, eta ez genuen horrelako harrerarik espero. Lehenengo kontzertu horretan jada harrera eta arrakasta zeukala ikusi genuen. Hau pozgarria da, batez ere niretzat. Zeren taldekideak Iruñeatik etortzen dira, baina batez ere niretzat etxe ondoan arrakasta izatea pozgarria da.

Atzerria ere joango zarete, ezta?

Alemanian probatu nahi dugu. Suitzan orain dela 2 urte egon ginen, eta Suitzan oso ondo joan zen. Lehenengo aldia zen Vendetta bezala joaten ginena, lehena Skalariarekin egon ginen. Kontzertu ahulagoak ere egon ziren, baina kontzertu onak ere egon ziren. Ea orain zer-nolako kontzertuak izaten diren. Bi dauzkagu Alemanian, eta beste bat Suitzan, lehen egon ginen leku batean. Hara joateko gogoarekin gaude, ea zer gertatzen den. Aberasgarria da taldearentzat, eta baita pertsonalki ere. Ez dugu denbora gehiegi izaten turismoa egiteko, baina beno.

Aurreko diskoan abesti batzuen bertsoak egiten zenituzten, disko honetan aurki al daitezke?

Ez, disko honetan ez dago bertsiarik, Pellok (taldekideak) dioen bezala %100 Vendetta da disko hau. Denak gure kantak dira. Bagenituen zuzenekoetan jotzen genituen bi bertso, eta dudatan ibili ginen disko honetan sartu ala ez.



M. UGARTEMENDIA

Baina, azkenean diskoan 12 kanta atera dira, eta guztira 18 gertuzkan. Disko indartsu bat ateratzeko gure materiala bageneukala, eta bertsiorik ez genuela behar ikusi genuen.

Baina, kontzertuetan jarraitzen duzue bertsoak jotzen?

Kontzertutan jarraitzen dugu jotzen, noski. Zuzenekoetan bertsioren bat edo beste egiten dugu. Dibertigarria da bertsoak egitea. Gainera, 'erraza' da, abestiei buelta bat ematea besterik ez da.

Zein dira disko honetako abestienezagarrak?

Denetatik dago. Gehienak oso dantzagarriak dira. Reggae pare bat daude eta soinu latino dezentet dago. Batukada ere sartu genuen Mulamboko Beldarekin. Gurekin elkarlanean aritu nahi zuen galdetu genion, eta berak buru-belarri lagundu zigun. Nik berarekin grabatu nuen, eta nire bizian jo ez nituen instrumentu batzuk jo nituen. Punk-rocka ere badago, tango ukituko abesti bat ere bai, mexikar ukituko abestiak ere badaude... Denetatik pixka bat dago.

Zuek musika munduan hainbeste urtean ibilita, ezagun asko izango dituzue mundu horretan. Aurreko diskoan hori nabaritu zen. Kolaborazio asko izan al dituzue disko honetan?

Aurreko diskoan jendeari deika

hasi ginen eta gonbidatu asko izan genituen. Honetan ere badaude kolaborazioak. Adibidez, saxo baritono bat behar genuen, eta Iruñeako ska talde bateko kide bati deitu genion. Baina, oraingoan kolaborazio puntualak izan dira.

Aurreko diskoan abesti gehienak gaztelaniaz ziren arren, bazenuten euskarazko abestiren bat ere. Oraingoan ere aurki daitezke?

Berdin. Bi abesti daude euskaraz, bata *Begietara begira* eta bestea *Sugarra zugan*. Taldean bi pertsonak konposatzen dute. Batak badaki euskaraz, eta besteak ez. Bakoiitari naturalki ateratzen zaiona egiten du, bere hizkuntzan konposatzen du. Gainera, normalean, kanta konposatzen duenak berak kantatzen du. Beti saiatzeko gara euskarazko abestiak ere sartzen. Hala ere, egia esan ez dugu kalkulatzeko.

Ze asmo daukazue aurrera begira?

Egurra ematen jarraitzea. Orain bi hilabete nahiko gogorrak daukagu, udara sartu baino lehen. Eta, udaran ere antzekoa izango dela pentsatzen dut. Hau bigarren diskoa da, aurrerapauso bat izan da. Dena aldatu dugu disko honetarako: disko etxea, managera, estudioa... Aurrera jarraitzeko asmoa dugu. Oso gustura gaude egindako aldaketa guztiekin.

GERENTEA

Erreferentzia: (11-ETXC)

Eskatzen da:

- Ingeniaritza, Enpresa Kudeaketa edo Ekonomia arloko unibertsitate ikasketak.
- Kalkulu orri eta datu base programa informatikoen ezagutza.
- EGA edo balokidea den euskara maila.

Kontuan hartuko da:

- Logistika, kudeaketa eta antolaketa lanetan eskarmentua.
- Talde gidaritzan esperientzia.
- Harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna.

Eskaizten da:

- Kontratu iraunkorra.
- Egun osoko lanpostua.
- Lantokia Andoainean.

Interesa dutenek curriculum, martxoaren 31a baino lehen, erreferentzia zehaztuz, helbide honetara bidali: gizabaliabideak@jarduna.net



80-90 lagun inguru elkartzen dira Asteasuko Kantujira Egunean. EMAIZ

VII. Kantujira Egunarekin alaituko dute Asteasu

12:00etan, Aitzondo elkartean elkartuko dira hainbat herritako kantu taldeak, gero herrian zehar abesteko

Maier Ugartemendia Asteasu

Bihar, Asteasuko VII. Kantujira Eguna ospatuko dute. Eguna berezia izaten da honakoa, hainbat herritako kantu taldeak biltzen baitira bertan. Donostia, Hernani, Aduna, Villabona, Pasaia eta Zizurkilgo herrietako kantu taldeak etorriko dira, besteak beste. Talde guztiak 12:00etan elkartuko dira Aitzondo elkartean. Bertan zerbaite hartu eta Elizmendia

aldera abiatuko dira. Momentu oro herriko umeek trikitixarekin alaituko dute giroa. Elizmendira doazela, tartean geldialdiak egingo dituzte, kanturako. Guztira 80-90 lagun inguru elkartzen dira kanturako.

Eguerdian, Santa Marina elkartera joango dira bazkaltzera. Gehienez 50 lagunek bazkalduko dute elkarrekin, eta ondoren kantuan jarraituko dute.

Euskal musika atsegin duenarentzat egun polita izaten da. Herrian ikusmina sortzen du, eta zenbait herritar beraiekin kantatzera ere animatzen dira. Kanpotarrentzat ere oso polita izaten da. Asteasu herri txikiagoa izanik, bertan sortzen den giroa ezberdina izaten baita.

→ Laburrak

Saharako haurrentzat arropa eta material bilketa

ALEGIA › Alegiako Udalak Saharako haurrentzat arropa eta eskolako materialaren bilketa egingo du. Gaur hasi eta hilaren 15ean amaituko da. Asteartetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, udal-etxeo gizarte zerbitzuen bulegoan egingo da bilketa. Bildutako arropa eta materiala Alegiako familia batek Saharara eramango du.

Korrikaren aldeko mus txapelketak, Alegialdean

ALEGIALDEA › Korrikaren aldeko mus txapelketak izango dira asteburuan, Alegian eta Amezketan. Alegiako gaur egingo da, 22:30ean Intxurre elkartean. Amezketako igandean izango da, Zazpi Iturri elkartean eta erabilera antzeko gelan. 16:00etan hasiko da, eta txapelketan parte hartu nahi dutenek ordu erdi lehenago eman ahalko dute izena. Bikoteko hamabi euro ordaindu behar dira. Txapeldunek afaria izango dute saritzat eta Korrikaren Gipuzkoako mus txapelketarako sailkatuko dira. Txapeldunordeek bi botila ardo jasoko dituzte.

'Baginaren bakarriketak' entzungo dira, Zizurkilan

ZIZURKIL › Antzerki astearen egitarauaren barruan, *Baginaren bakarriketak* antzerkia ikusi ahal izango da, gaur, Zizurkilan. Antzerkia Atxulondo kultur etxean izango da, 20:00etan. Sarrera 3 euro kostako da.

Gutuna

Dagozkien eskubideen jabe

Oihanak Maiterekin asteburu honetan zuen bisita bertan behera geratu da, Maite Mitard-ean zigortuta baitaukate Saioarekin batera. Joseba eta Mikel Parisetik bueltan sartuko dituzte. Hogeita hiru ordu zelda txiki-txiki batean, bertatik atera gabe.

Egunean ordu bateko patioa, kaiola antzeko zulo batean, ia zerririk ere ikusten ez duela, inorekin hitz egiteko aukerarik gabe, bakarrik. Liburu bat, muda bat, lau orri eta axota, ezer gutxi gehiago. Zerbaiten beharra suertatzen bazaie, oso modu umiliagarrian jasotzen dute. Erabateko isolamendua; hauxe da Mitard-a.

Maite, Joseba, Saioa eta Mikelen eskaerak hauek dira: hilabeteo azken ostiralean, kontzentrazioa egiteko eskubidea; bisita guztiak ordu eta erdiokoz izateko eskubidea; ordenagailua erosteko eskubidea; Josebak medikua-renera joan behar duenean, Mikelke itzultzaile lanak egitera joateko eskubidea.

Orain bi aste, Maite eta Mikel epailearengana Parisera eramant zizuten, aldarrikapenak erabat zilegi zirela eta beraiel arrazoia emanez, espetxeko zuzendariarekin hitz egingo zuela erantzun zien epaileak. Ordu eta erdi bitaren eskubidea izan ezik, besteak onartuak izan omen dira, nahiz eta oraindik ez gauzatu.

Maite eta bere kideak Poitiers-eko espetxean duten egoera berdina edo okerragoa euskal preso politiko guztien eguneroko ogia dela eta bi estatu zapaltzaileek (EAJ edo Aralar bezalakoek) lagunduta; antzerki antzerki atzo gaur eta beti) euskal presoek pertsona bezala dituzten oinarrizko eskubideen kontra dara-

bilten espespe politika hiltzaileak eta mendeku goseak alarma guztiak saltarazi dituela. Europa guztian, ez da horrelako espespe politika hiltzaile eta ankerragorik ezagutzen! Bizitza guztirako espespe zigorrak asmatu eta ezarri dituzte, gaixotasun sendaezinak dituztenak baldintzarik latzenezan preso daukate oraindik, kondeneren 3/4ak bete dituztenak, ez dituzte Euskal Herrira ere hurbiltzen, aske behar zutenean beraien legean arabera.

Ikasketak burutzeko trabak, senideei miazte higuigarriak, jipoiak noiz nahi... eta dispertsatuak! Etzetik oso-oso urrun, lagunak eta batez ere, senitartekoak gogor zigortu. Gurasoak, asko eta asko adinean aurrera, ehunka kilometro kotxez edo trenez egitera behartuak!

Guzti hau da euskal presoekin eguneroko ogia, beraien telebista eta irratiek isiltzen dutena, baina existitzen dena; tortura-komisaldegietan bezala, hori denok dakigu. Nahiz eta gero demokrazia eta giza eskubideen alde hitz egin edo biolentziaren aurka azaldu telebista eta irratietan, zuena da biolentzia! Ez zarete lotsatzen ez duzelako lotsarik, baina zuena da biolentziarik krudel eta koldarra. Horregatik erantzuten diozue ireki berria den eskenatoki berriari biolentziaz; atxiloteketin, torturaren, ilegalizazioekin, preso eta iheslarien senideen aurkako eskubide urraketa etengabeekin, gezurrekin eta manipulazioarekin. Gaur ostirala, arratsaldeko 19:30ean elkarretaratzea Ibarra-koplazan, azaldu!!

■ **Ibon Aranalde**. Maite euskal preso politikoaren anaia, senitartekoaren izena.

Urteurrena

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



- I. URTEURRENA - TERESA MUJIK MITXELENA

(Andres Arrutiren alarguna)

- Goian bego -

2010eko apirilaren 15ean hil zen, 86 urte zituela. Elizakoak eta Alta Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Seme-alabak: Arantxa eta Jose Miguel Vera, Maite eta Pedro Ebaniz, Mañoli eta Joxean Elosegi, Ana eta Jose Luis Erkizia, Lurdes; iloba: Mirentxu Geresta, Bilobak: Ander eta Maria, Jon eta Ana, Garbiñe eta Koldo, Arantxi eta Mario, Jurdana eta Marc. Birloba: Eider. Anai-arrebak: Maritxu (†), Manuela (†), Joakin, Lesmes, Juanita eta Joxe, ezkon senideak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak

Haren arimaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte IGANDEAN eguerdiko HAMABIETAN, SAN ESTEBAN parroki elizan egingo den urtebetetze mezara. Aldez aurretik mila esker.

Helbidea: Legarre kalea, Etxe argia, 4. esk.

Oiartzun, 2011ko apirilaren 1ean

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

- **Villabona.** Gaur Korrika 17ren materiala jarriko dute salgai Berdura plazan 18:00etatik 20:30era.
- **Ibarra.** *Lehen napar euskaldunak, lehen euskal naparrak* izeneko mahai ingurua egingo dute gaur. Subegi kultur elkartean 19:15ean. Bertan, Iñaki Perurena izango da. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte mahai ingurura gerturatu eta galderak zein ekarpenak egitera.
- **Ibarra.** Gaur Korrika Oinez po-teoa eta kartel jartze irekia. 19:30ak inguruan bilduko dira herriko plazan.
- **Tolosa.** Euskararenean ekimenaren barruan *Zazpi askoren gainean* izeneko bertso ikuskin-zuna bihar, 11:30etik aurrera Zerkasian. Emanadrian Jon Martin eta Iñaki Apalategi bertsolariek, eta Larreategi anaiek hartuko dute parte, trikitixa joaz.
- **Tolosa.** Bihar goizean Korrika 17ko materiala jarriko dute salgai Trianguloan.
- **Tolosa.** Bihar 11:00etatik aurrera biga enkantea izango da Ferialekuan. Frisoiak, pirenaiako-

- ak, limusinak eta blondak jarri-ko dituzte enkantean.
- **Tolosa.** Bihar bitarte Coke Riobo zuzendari eta gidoilari sar-ritua egongo da Topic-en tailer bateko irakasle gisa. Tailerra 7 urtetik gorako haur eta helduei zuzendua da, eta, besteak beste, plastilinarekin teknika batzuk irakatsiko ditu. Izena emateko ditu 943 65 01 14 telefono zenbakira.
- **Tolosaldea.** Bihar Bilbon *Euskal Herriarentzat normalizazioa. Legalizazio orain!* lelopean egingo den manifestaziora joateko autobusak antolatu dituzte. Tolosan 15:30ean irtengo da Trianguloatik, eta Raku taber-nan eman behar da izena gaur eguerdia baino lehen. Anoetan Itzulin eman daiteke izena gaur eguerdia baino lehen. Autobusa 15:00etan irtengo da plazatik.
- **Tolosa.** Osasun publikoaren aldeko plataformak sinadura bilketa egingo du bihar goizean Trianguloan.
- **Tolosa.** Urkizu auzoko Alur Txiki Auzo Elkarteak Rioja Vega upategira joateko irteera antolatu du apirilaren 9rako. Izena igandea, hilak 3, baino lehen eman behar da 652 70 96 80 telefono zenbakira deituta.

Hirukideko eta Laskoraineko DBHko ikasleak, bizikidetzan

Ikastetxeko gazteak Frantziako Luneville herrian izan dira, eta ikastolakoak Britainiako Bresten

Erredakzioa Tolosa

Bertako kultura ezagutzea bezain garrantzitsua da ingurura begiratu eta beste errealitate batzuk ezagutzea.

Bide horretatik, Tolosako Hirukide ikastetxeko eta Laskorain ikastolako ikasleek Frantziako Luneville eta Breste (Britainia) ezagutzeko aukera izan dute, hurrenez hurren.

Hirukidekoak zazpi egunez egon ziren Frantzia iparraldeko hirian, Alemaniako mugatik gertu, eta bertan ingelera praktikatzeari gain, bertako historia, kultura eta ohiturak ezagutu zituzten DBH 4ko 46 ikasleak eta 3 irakasleak. «Bertan ikasleek katedralak, hirietako kale bazterrak, Lehen Mundu Gerrako mausoleoa eta abar ikusi zituzten», diote

Hirukide ikastetxeko irakasleek. Laskorain ikastolako DBHko ikasle eta irakasleek, aldiz, Diwan-Lereleg ikastetxekoekin egon ziren.

Bertan, klaseak bretoiarez ematen dituzte, eta beraien ibilbideak ikastolakoekin antzekotasun handia duela diote Laskoraineko arduradunek.



Lehen irudian Hirukideko ikasleak, eta bestean, Laskorainekoak. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 36 49.

- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZI

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroitz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!
Amaia (Berastegi). Igandean urteak betetzen ditu. Muxu handi bat Maialen, Julen eta aita txoren partetik.



Naroa Olano (Leitza). Gure sorgintxoak gaur 3 urte betetzen ditu. Muxu goxo bat Leitza eta Belauntzako familiaren partetik. Ongi pasa!!



saridunak

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **3 diska** ditu

Peachy Joke
taldearen
Asian Tiger Mosquito

- Nekane Jauregi (Tolosa)
- Egarrí Taberna (Zizurkil)
- Laskorain Ikastola (Tolosa)



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

Izaro eta Elene
Batera Live
ikuskitzunerako

- Ramoni Otamendi (Tolosa)
- Haritz Arana (Tolosa)

Apirilak 1 • Ostirala
20:30ean • Tolosako Leidorren



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu

Ateka Rock
jaiandirako

- Xabi Otegi (Tolosa)
- Jorge Eceiza (Villabona)

Apirilak 2 • Larunbata • 20:30ean
Leitzako Kiroldegian

